



EBAZPENA, 2010eko abenduaren 27koan, Hezkuntza sailburuordearena, jarraibideak ematen dituena 2010/2011 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan oinarrizko gaitasunen ebaluazio diagnostikorako prozesuan aurreikusitako probak egiteari buruz.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2008ko abenduaren 2an emandako Aginduak arautu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan egin beharreko ebaluazio diagnostikorako prozesua, eta ebaluazio diagnostikoari dagozkion helburua, aplikazio-esparrua, zertarakoa, edukia, ebaluazio-prozesua eta hobekuntza-prozesua zehazten ditu. Ebaluazio diagnostikorako probak herri-funtsen bidez finantzatutako ikastetxe guztietan aplikatuko dira, urriaren 16ko 175/2007 Dekretuko 36. artikuluan adierazitakoaren arabera; izan ere, hartan, Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma finkatzen da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen.

Ebaluazio diagnostikoaz aritzean, ulertu behar da prozesu bat dela, eta ikastetxeak eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema hobetzen laguntzen duela, datu zorrotzak eta fidagarriak emango dituelako, eta datu horiek baliagarriak izango direlako irakasle-taldeek eta hezkuntza-komunitate osoak hausnarketa egiteko. Beharrezko da kontuan hartzea diagnostiko-probak Lehen Hezkuntzako laugarren mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako ikasleen artean orokorki aplikatzeak ezinbestean eskatzen duela aplikazio-procedura zehatz eta kontrolatua erabiltzea, lortzen diren emaitzetan zorroztasun-maila handia izatea bermatzeko.

Hori dela eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2008ko abenduaren 2an emandako Aginduaren 6.1 artikuluak –agindu horretan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako ebaluazio diagnostikorako prozesua arautzen da– aurreikusita dauka Hezkuntza Sailburuordetzaren Ebazpen bidez ezartzea ikasturte bakoitzerako zer epe zehatzetan egingo diren probak, eta zenbat iraungo duten. Era berean, aipatu aginduko azken xedapenetan lehendabizikoak ahalmena ematen dio Hezkuntza sailburuordeari hartan ezarritakoa garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Beraz, bidezko da jarraibideak ematea, 2010/2011 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoan oinarrizko konpetentziien ebaluazio diagnostikorako probak egiteari buruz. Horretarako, hau

XEDATU DUT:

1.2010/2011 ikasturte honetan ebaluatuko diren oinarrizko konpetentziak hauek izango dira:

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia euskaraz eta gaztelaniaz.
- Matematikarako konpetentzia.
- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia atzerriko hizkuntzaz (ingelessez).
- Aplikazio honetan bertan, konpetentzia batzuei dagokien proben ebaluazio pilotua egingo da, eta horien emaitzekin, ISEI-IVEIk datorren ikasturteetan aplikatuko diren konpetenzien gaineko behin betiko probak egin ahal izango ditu.

2.- Probak aplikatzeko epea hau izango da:

- a) Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak: 2011ko martxoaren 7tik martxoaren 18ra bitartean.
- b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleak: 2011ko otsailaren 21etik martxoaren 4ra bitartean.
- c) Ezohiko egoerak edo aplikazioan zehar sor daitezkeen arazoak konpontzeko, aurreko artikuluetan adierazitako aplikazio-epeak zenbait egunetan zabaldu ahal izango dira.

3. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, lehiaketa publiko bidez, kanpoko enpresa bati esleituko dizkio talde eta ikastetxeetako bakoitzean probak aplikatzearkin zerikusia duten lanak. Enpresa esleipendunaren lana ISEI-IVEIk gainbegiratuko du zuzenean, eta lan horretan zorrotz bete beharko dira ebaluazio diagnostiko honetarako zehaztutako protokolo eta irizpide estandarizatu guztiak.

4. Aplikazioak dirauen bitartean, bai ISEI-IVEIk bai enpresa esleipendunak ikastetxeei laguntzeko zerbitzu iraunkor bat izango dute funtzionamenduan, aplikazio-prozesuan zehar sor daitezkeen arazo guztiak laster eta eraginkorki konpontzen direla bermatzeko.

5. Proben aplikazioan esku hartzen duten ikastetxez kanpoko pertsonek behar bezala identifikatuta egon beharko dute. Zuzendaritza-taldeari dagokio, ebaluazio diagnostikoaren Koordinazio Batzordearen bitartez, baliabideak jartzea, bai eta proben aplikazio zuzena bermatzeko baliagarriak diren antolaketa-alderdi guztietan laguntzea ere.

6. Ebaluazio diagnostikoaren aplikazioa garatu bitartean, alderdi hauek kontuan hartuko dira:

Proben aplikazioa elkarren ondoko bi egunetan egingo da, goizez egin ere. Bi egun horietan, ikasleen ordutegia, ahal den neurrian, ebaluazioaren antolaketa-premietara egokitu beharko da. Salbuespenez, aplikazioa arratsaldeko saioren batera zabal daiteke.

Bi aplikazio-egunetako bakoitzean, ikasleek bi oinarritzko konpetentziei dagokien errendimendu-probak egin beharko dituzte; proben artean, gutxienez, 20 minutuko atsedenaldia izango da. Ikasleek bi hizkuntza ofizialetan –euskarra eta gaztelania– duten hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia neurtzeko probak egin desberdinetan egingo dira. Ebaluazio pilotuaren probak egingo dituzten taldeek bi egunetako batean aparteko proba bakarra izango dute, 30 minutu ingurukoa.

Euskarazko, gaztelaniazko eta ingeleseko, hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari dagozkion probetan, ahozkoaren ulermenai neurtzeko egin beharrekoa CD bat entzunez gauzatuko da. Horregatik, ikastetxeak beharrezko baliabide teknikoak izango ditu, CDa ondo entzun ahal izateko talde bakoitzak proba egingo duen lekuak.

d) Halaber, ikasleek testuinguruko galde sorta bete beharko dute. Aplikazioa errendimendu-probak ezarriko diren ordutegitik kanpo izango da. ISEI-IVEIk sortutako aplikazio informatiko baten bidez galde sortari erantzungo diote. Prozesua egoki bermatzeko, ISEI-IVEIk ikastetxe guztiei behar den informazioa bidaliko die.

e) Ebaluatuko diren talde bakoitzeko tutorea galde sorta horren aplikazioaren erantzule izango da; zeregin horretarako, ISEI-IVEIk definitutako protokoloari eta irizpideei jarraitu beharko die. Galde sorta beteko da aldez aurretik ikastetxe bakoitzean adostutako egunetan. Bestalde, galde sorta betetzeko unean, tutoreak ikastetxeko IKTen arduradunaren lagun eta lankidetza kontuan izatea egokia izango litzateke.

f) Ikastetxe bakoitzeko etapa bereko talde guztiak aldi berean, egun beretan egin beharko dituzte probak, protokolo eta aplikazio-irizpide berei jarraituz egin ere, ikasle guztiak probei baldintza beretan erantzuten dietela bermatzeko.

g) Ikasleak talde osoarekin geldituko dira proben aplikazio-gelan, ebaluazio-saio bakoitzerako aurreikusitako denbora bukatu arte. Zuzendaritza-taldeari edo hark ardura uzten dion pertsonari egokituko zaio aplikazio-prozesu horretan zehar ikasleek portaera zuzena dutela zaintza, bai eta, bi aplikazio-egunetan, errendimendu-proben arteko atsedenaldian ikasleak antolatzea eta begiratzea ere.

h) Zuzendaritza-taldeak, 2008ko abenduaren 2ko Aginduko 5.3 artikuluan zehaztutako Koordinazio Batzordearen bitarte, antolaketa-neurri egokiak hartuko ditu, bere ikastetxeko ikasleek probak ahalik eta egoera onenean egiten dituztela bermatzeko, eta ikasleen errendimenduan eragina izan dezaketen etenak eta distrakzioak galarazteko.

i) Zuzendaritza-talde bakoitzak, jakinarazpen ofizial baten bidez, aurrez jakingo du zer egunetan egingo den aplikazioa bere ikastetxean. Guztiz justifikatutako arrazoiengatik probak proposatutako egunetan ezin badira egin, ikastetxeko zuzendariak horren berri emango du, egunak aldatzeko.

Proben aplikatzailearen ardura izango da ebaluazioan erabiliko diren material eta tresna guztiak zaintza, hala nola haien gaineko erabateko konfidentzialtasuna bermatzea, eta, horretarako, une oro galarazi beharko du aplikazio-prozesuarekin zerikusirik ez duen edozein pertsonak haien jakitea edo erabiltzea.

k) Taldeetako bakoitzean probak egin bitartean, hauek baino ezingo dira egon ebaluaziorako aretoaren barruan: aplikazioa egitearen ardura duen pertsona eta ikastetxeko zuzendariak proposatutako beste pertsona bat, gerta daitekeen edozein anomalia edo ikasleen jokaera-arazoak konpontzen laguntzeko.

l) 6c puntuaren aipatutako probak, edozein hizkuntzatako hizkuntza-komunikazioko gaitasunen ahozko ulermenari dagozkionak, aplikatzean, haien konfidentzialtasuna bermatzeko, ebaluazio-aretoan aplikatzaileak bakarrik egon beharko du ikasleen taldearekin.

m) Ikastetxeko zuzendaritzak ikastetxeko oinarrizko ezaugarriekin lotzen den testuinguruko galde sorta beteko du. ISEI-IVEIk datu horiek erabiliko ditu emaitzak interpretatzeko.

7. Proben aplikazioa egin baino egun batzuk lehenago, ebaluazioan esku hartuko duten taldeetako tutoreek ikasleei jakinarazi beharko diete zertarako diren probak, zer ezaugari dituzten eta nolako garrantzia duten. Era berean, probak egiteko argibide orokorrak jasotzen dituen dokumentua azalduko diete ikasleei. ISEI-IVEIk proben aplikazio-aldia baino gutxienez hiru aste lehenago bidaliko du dokumentua ikastetxe guztietara. Icasleei ez zaie jakinaraziko aplikazioa egiteko egun zehatzak.

8. Hezkuntza Ikuskaritzak proben aplikazio-prozesuaren kontrola egingo du talde guztien lagin batean –bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan, bai DBHko 2. mailan–, ebaluazio honetarako zehaztutako irizpide estandarizatu guztiak errespetatzen direla egiazatzeko. Lan horren emaitza gisa, Hezkuntzako Ikuskaritzak laburpen-txostena egingo du, eta hori Hezkuntzako Sailburuordetzara eta ISEI-IVEIk bidaliko dute. Txosten horretan bilduko dira aplikazio-prozesuan detektatutako arazoak, haren balorazio orokorra eta egokitza hartutako hobekuntza-proposamenak.

9. Probak zuzendutakoan eta ISEI-IVEIk beharrezko azterketak egindakoan, zuzendaritzako ekipoi ikastetxearen txostena emango zaie, eta ebaluazio honetan parte hartu duten ikasleen familiari beste txosten bat. Txosten hori datorren ikasturteko lehen ikasturtean egin beharko da, eta bidaltzean, kontuan hartu beharko dira datu pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa eta 2008ko abenduaren 2ko Aginduan –informazioa eskuratu, erabili eta tratatzeari buruzkoa-, 7. artikuluan adierazitako berme guztiak.

10.- 2008ko abenduaren 2an emandako Aginduaren 8.2 artikuluak adierazten duenaren arabera, zuzendaritzak familia bakoitzari bere seme-alabaren emaitzak helaraztea kudeatu beharko du.

11.- Jasotako emaitzetan oinarritura, ikastetxe bakoitzak hobekuntza-prozesua egin beharko du, 2008ko abenduaren 2ko aipatu Aginduko 8. artikuluan adierazi bezala. Hobekuntza-prozesu honetan, 2011eko ebaluazioan lortutako emaitzez gain, kontuan hartu beharko dira aurreko ebaluazio diagnostikoetan lortutakoak ere, baita Hobetzeko-planetan hitzartutako eta definitutako jarduketa-proposamenak ere

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 27a

Hezkuntza sailburuordea

Mª Antonia Ozcariz